

# Joxemartin gogoan

(In remembrance of Joxemartin)

Apalategi Begiristain, Jaione  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Psikologia eta Pedagogia Saila.  
Arrosadia, z/g. 31006 Iruñea  
jaione.apalategi@unavarra.es

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-218-3 (2011), 39-45]

---

*Joxemartin zenaren familiaren izenean hitz egiteko eskatu digute eta ondoko lerrotan adierazten duguna, egun bizi dugun Ama, bere bost anai-arreba eta koinatu-koinatak zein bere hamar ilobek, aho batez, adostuko genuken argazki laburra dela esan dezakegu. Joxemartinentzako familia, gizatasunaren benetako mintegia zen, balio handiko egitea. Bera antropologoa zen, bai etxean zein kanpoan. Azken aldian, Antropologia zientziarekin haserre ageri zen, gizakia eta gizataldeak aztertzeko pertsonaren manupea erabiltzen ez zuelako, antropologiaren garaia baino, pertsonologiarena zela aldarrikatuz zendu zen.*

*Giltza-Hitzak: Ataub. Familia. Antropologia. Unibertsitatea. Zientzia. Hizkuntzak. Ekintza. Pertsona.*

*Nos han pedido que hablemos en nombre de la familia del difunto Joxemartin, y podemos decir que lo que explicamos en estas líneas es el breve retrato que consensuaríamos unánimemente entre su madre, que aún vive, sus cinco hermanos, hermanas, cuñados y cuñadas y sus diez sobrinos. Para Joxemartin, la familia era el verdadero vivero de la humanidad, una realidad de gran valor. Él era antropólogo dentro y fuera de casa. Últimamente estaba enfadado con la ciencia de la Antropología, porque no utilizaba el dominio de la persona para estudiar al hombre y a los grupos humanos, y murió diciendo que más que la época de la antropología era la de la personología.*

*Palabras clave: Ataub. Familia. Antropología. Universidad. Ciencia. Lenguas. Acción. Persona.*

*On nous a demandé de parler au nom de la famille du défunt Joxemartin et nous pouvons dire que ce que nous expliquons ici est le bref portrait que nous pourrions ébaucher à l'unanimité entre sa mère, qui vit encore, ses cinq frères, sœurs, beaux-frères et belles-sœurs et ses dix neveux. Pour Joxemartin, la famille était le véritable vivier de l'humanité, une réalité de grande valeur. Il était anthropologue à l'intérieur et hors de la maison. À la fin de sa vie, il regrettait que la science de l'anthropologie n'utilise pas ses connaissances sur la personne pour l'étude de l'homme et des groupes humains. Et il est mort en déclarant vivre l'époque de la personologie plutôt que celle de l'anthropologie.*

*Mots clés : Ataub. Famille. Anthropologie. Université. Science. Langues. Action. Personne.*

Bigarren aldia da, norbaiten oroimenez ekintza akademiko batean parte hartzen dudala, lehenengoa, 2003ko UEUko irekiera ekitaldian “Jorge Oteiza gogoan” hitzaldi sarrera egiteko gonbidatua izan nintzenekoa da, Jorge hil eta handik hiru hilabetera egokitu zena, hain zuzen ere; bigarrena, gaurko hauxe bera, 2007ko otsailaren 15ekoa, iaz zendu zen Joxemartin Apalategi Begiristain, gure senide zenaren oroimenez antolatu duzuen saioa litzateke. Biekin harreman sakona izan nuen.

Ni, familiaren izenean hitz batzuk esatera gonbidatu nauzue eta hartan hasi aurretik, zera esango dut: ez dakidala gure Joxemartinek nahiko luken bezala gogora ekartzera lortuko dudarik, baina, ziur nagoela oso pozik eta harro sentituko zela Jokin anaiak eta biok (bost anai-arrebetatik senide zaharrena eta gazteena garenok, berari azpimarratzea gustatuko zitzaion bezala...), ofizioz bera bezala Unibertsitateko irakasleak, *bere izenaren izana* gogora ekartzeko EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen eta Eusko Ikaskuntzaren artean antolatu duzuen ekitaldi honetan parte hartuko dugula jakiterakoan.

Eskerrik beroenak ekitaldi akademiko hau antolatzeko ardua hartu duzuen lantalde zientifikoko: Olatz Angel, Teresa del Valle, Anton Erkoreka, Aitzpea Leizaola, Juan Antonio Rubio-Ardanaz eta Inmaculada Sánchezi, bai eta argitalpenaren ardua hartu duzuenoi ere.

Eskerrak baita ere, Joxemartinen Fakultateko eta Saileko lankide guztiei eta bereziki kudeaketa arduratan zenbiltzatenoi, bere gaixotasunagatik azkeneko hilabeteetan eragin zituen gorabehera akademikoei aurre egiten hainbeste adore eta sentsibilitate erakutsi zenutelako, eskerrik asko guztioi! Eskerrik asko EHUko Donostiako Campuseko osasun zerbitzuko sendagileari ez dut bere izena gogoratzen, administrari eta zerbitzu ugarietako langilerari, bere eskaera eta beharrei erantzuten lagundu zeniotelako.

Esker bereziak, 1980tik 2006 arte bere ikasleak izan zireten guztiei eta bere azkeneko hilabeteetan, 2005ko urritik abendu arte, gutxi gora behera, Joxemartinen egoera larriaren aurrean hain adimentsu eta sentiberatasun apartaz jokatu zenutelako, mila esker bene-benetan!

Jokin anaia eta biok saiatu ginen 2005-06 ikasturte hasieran Unibertsitatean hasi ez zezan, ez genuen ondo ikusten eta gainera, 2005eko ikasturtearen bukaeran egin zizkioten azterketa medikuetan, *ELA* edo *ALG -Esklerosi Lateral Amiotrofikoa* edo *Lou Gehring*-en gaixotasuna izan zezakeela aipatu ziguten, naiz eta urrian egindako beste frogetan, erabateko ziurtasunarekin diagnostikatu zioten aipatu eritasuna. Ordurako, ezagutzen zenuten guztiok, badakizue, agerian zuela gaixotasuna... Nola edo hala, Santomasak arte eskolak ematen irauin zuen, lehenengo lauhilabeteak osorik egitea zuen buruan, baina nahiz eta ezer gutxi adierazi, ezin zuela jarraitu ohartzear zegoan eta azkenean, bere saileko kideen esku hartzea onartu zuen, besteak beste, Eguberrietako jaien ondoren oso klase gutxi geratzen zitzaizkiola eta bere azterketaz arduratuko zirela esan ziotenean... 2006ko otsailaren 6an laneko baja formalki eskatzeko pausoak ematen hasi zen EHU eta 8an hil zen.

Joxemartin Unibertsitate zalea zen, irakasle eta ikerlaria izatea maite zituen, gogoak aginduta lan egiten zuen, lanean nekaezina zen, lanagatik ez zen inoiz ke-

xatzen; bere adimen arrazionala ezin da ulertu bere adimen emozionala kontutan eduki gabe; kristautasuna praktikatzen zuen; euskara zientziaren argitan bilakatzen ahalegin handiak egin zituen baita lortu ere; jakintza eskuratzeko orduan asegaizta zen; bidaiari amorratua; berrogeita lau urterekin ingelesa ikasten jarri zen eta handik lau urteetara mintzatu eta nazioarte mailan idazten zuen antropologiaz; gurasoak gurtzen zituen, pertsona zalea zen, maite zuen guztia Unibertsitate eremutik kudeatzen zuen eta benetan dizuet bere bihotzean zuek denak kabitzen zinatela.

Bere pentsatzeko eta maitatzeko era, esango nuke, ez zela gizarte garaikidean gailentzen den modukoa edo mekanikoki garatu beharreko zerbait bezalakoa, ez, oso pertsonala izateaz gain, gizarte mitologikoen garaikoarekin antzekotasun gehiago zituela esango nuke nik eta bere kasuan, historiaurreko euskal munduaren ikuspegian gordeta geratu zen unibertso magikoaren kontzeptuak agintzen zuela.

Langile amorratua zela edozeinek aitortu dezakegu, baina berezko gaitasuna izateaz gain, gaitasun ikasia zuela ere esan daiteke eta horregatik ondokoei, bere buruari adina eskatzen zien horietakoa zen, bere ikasleak izan zaretenak ongi jakingo duzuen bezala...

1997-98an bere azkeneko titulua eskuratu zuen *Master in Sociology of Law* eta bere lehenengo unibertsitate titulua berriz 1969koa izan zen, Parisko Vincennes Unibertsitatean lortu zuena *Filosofiako Lizentzia*, hain zuzen ere. Tartean Parisen lortutako beste hauek agertzen zaizkigu: 1972an *Soziologiako Lizentzia*; 1978an *Filosofiako 2. Lizentzia* (Paris), 1982an *Gizarte Zientzietako Maîtrise* eta 1984ean *Soziologiako Maîtrise*.

Euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa menperatzen zituen, lauretan irakaskuntza eta ikerkuntza burutu zuen, lauretan bizi, ikasi eta bidaiatu zuen: Europa, Afrika, Asia eta Amerikatik zehar lan saio ugari egin zituelarik.

Joxemartinen ikerketa jarduna ulertzeko, bederen zazpialdi berezitu ditzakegu, bere lorpen eta hutsuneak antropologia elkarte zientifikoari epaitzea dagokiolarik:

1. Jakintzaren munduan, antropologiaren alorrean, kokatu zen baina *leit-motiv* batek gidatzen du bere ikertzaile jokabidea: Etnografari izan beharrarena, hain zuzen ere. Honen lekuko, bere bi maisuren zuzendaritzapean, Joxemiel Barandiaran eta Julio Caro Baroja, 1984ean irakurri zuen Doktore tesia dugu: *Antropologia berria. Ahozko produkzioa. Ataungo herria, auzoak, pertsonaldeak eta pertsonak*. Jarraian, 1985ean, Joxemiel Barandiaranen *Etnografiazko galdeketa batetarako gidaliburua* euskarara itzuli eta argitaratu zuen. Jarraian, 1988an, Joxemartinek berak, galdeketa hori erabili zuen hainbat herritan, eta erantzunekin, besteak beste, *5 Etnografiazko galdeketa elikapenez*, eta *3 Etnografiazko galdeketa elikapenez* izenburupean argitaratu zituen.
2. Bigarren ikerketa jarduera deitu dezakeguna, 1985az hasi zen, *Euskal Herriko etnografia eta antropologia soziokulturala*, izenburupean gure kulturaren geografia osoan eta populazioaren klase guztietan gaur gaurko et-

nografia egiteari ekin zion, "...etnografia egin ahala antropologia soziokulturala egiten ari naiz" esaten zuen, eta horri loturik aurkezten du 1987an, *Antropologia hirian Bilbon*, alegia.

3. Hirugarren ikerketa alor landua *antropologiazko hiztegia* osatzen eraman-dako saioa da. Joxemiel Barandiaranek Euskaltzaindiaren Iker bildumako 2. liburuan argitaratutako artikulua izan zen aitzakia. Berak, Ataunen erabil-tzen diren zenbait hitz hartuz, Euskal Hiztegi arruntetan eta batez ere Az-kuereanean ageri ez zirela erreparatuz, adineko lau ataundar berriemaileren bidez kontzeptu horien erabilpena erakusten digu.
4. Laugarren ikerketa orientazioa *etnografia filmatua* deituko genukeena dugu. Oraindik ez da publikoarentzat ezaguna. Baina, egun batez, agian las-ter, ezagutzera emango dugu. Benetan, lan eskerga eta originala egina utzi digula uste dugu.
5. Bosgarren ikerketa ibilbidea, argitaratzaile bezala egin zuena litzateke, *Antropologia Euskal Bilduma -Joxemiel Barandiaran (ABjm)-en* sortzaile eta zuzendaria izan zelarik, 1985-89ra, guztira 33 liburu argitaratuz, Luis Ha-ranburu Altunaren Kriselu argialetxean.
6. Seigarren ikerketa orientazioa *atzerrietan zehar jasotako etnografia* dugu. Eu-ropan, Ameriketean, Asian eta Afrikan egindako bilketak daude. 1997-98an *Conflicts between customs and law. Two case studies: Onati, Brecon (Bas-que an Welsh communities)*. Hau ere ez da publikoarentzat ezaguna.
7. Zazpigarren ikerketa lerroa, 1991an hasi eta inoiz utzi ez zuena dugu..., Laz-kaoko Goierriko Euskal Eskolaren eskutik sortu zen *Gerriko Idazlan-Sarike-tako zientziatzko elkarteko zuzendaria* izatetik jorratu zuena genuke.

Bestalde, zuetako asko galdezka egongo zarete zergatik hautatu dugun argazki hau, non Joxemartin moztuz jantzitako norbaitekin agertzen den, eta egia esan, badu bai bere esanahi berezia. Gutako askok, Joxemartini entzungo genion esaten "... niretzako, dagoeneko, Antropologia Pertsonologian bihurtu da..." edo irak-urriko genion:



Pertsona, latineko *personatik* dator eta antzezleek omen zeramaten maskara esan nahi du. (...) gaur egun nire folk/lore, an-tropo/logia guztia pertsonara edo indibiduoaren maskarara mugatzen dut. Honekin nahi dut esan lehen-lehenik ez dagoela ezer folk, etnosa edo talde batean bere pertsona-kide bakoitzaren indibiduotasuna baino nagusiagorik eta bigarrenik indibiduotasunaren oinarria erabat ezagutzera ez garela iritsiko ez folk/lore, an-tropo-etno/logjatik eta, gaineratuko dut, ezta, nire ustez, beste inolako jakintza motatik ere. (GARAGORRI, X. (zuz.) (2004) *Euskal Curricu-luma: Kultur ibilbidea*. Donostia: Ikastolen El-kartea, Eusko Jaurlaritza; 418. or.)

Ikerketa lerro berri bat irekita utzi ote digu Joxemartinek?

Aipatu argazki honetan mozorro jantzita agertzen dena Jon Iturrarte artista, eskulturgilea eta Joxemartinen lagun handia da. Zein bera bezain egokiagoa bere esanahia argitzeko? Horra hemen argazkia bere hitzetan:

Barandiaranek idatzita utzi zuen bezala (Lan Osoak, 1. Liburukia) ...sekretuan mantendu beharreko gauzen izenak edo tabutzat hartzen direnak badaude Horregatik hizketa arruntean beste batzuegandik ordezkatuak izaten dira, ezizenez, hain zuzen ere... Aipatu argazki hau, *Izenaren ezizenen bila* deituriko Ekintza osatzen duen hemeretzit argazkietako segida bat da (J. Iturrarte, Lareo, 2000)...

Hara hemen bere historia.

Bazen behin batean XXgarren mendeko neguko azkeneko solstizioaren eguna, abenduaren 21a, eta gainera ilargi bete zen. Ataungo Lareon gaude, Aralar inguruko mendietan. Jentilen lurraldean.

Bart bota duen izotzak, zailtzen du gure igoera.

Antropologoa artistaren deiarri erantzunez etorri da bitartekari eta lekuko bezala egiteko. Oteizari jarraituz (1952, *Interpretación estética de la megalítica americana*):... ardura politikodun ofizio eta jakintza kultural eta sozialei ekiteko,... espirituaren salbamendurako abentura arriskutsua,... bidai erakargarria bezain lazgarria,... gizonaren joan etorriak paisaian...

Argazki honetan, Joxemartinek bere ezkerreko esku magikoan, ATARI mozo-  
roaren iraunkortasunaren lekukoa erakusten du (geltoki mitopoetikoa, San Gregorio, 89-90) uren sakonean, azpian, "humus"ean, gordetako makila-estatu-  
arioaren bitartez. Izan ere, berriro Oteizari jarraiki,... gauzen aurpegira ekarri-  
ko sakonak, ba al dezake mozorro bezala ez agertu? Aurpegiaren arteko, aurrez  
aurreko talkak bakarrik bideratu dezake maskararen estetika mugiezinenaren mate-  
ria abstraktu eta bizia. Kultura bakoitza talka hauen bideratzeko teknika bat da...

Mozorroak, mamurrak, galtzagorriak. Marixular, adur... nortasun kulturala  
adierazten duten mozorro antropologikoak dira. Konponbide estetikoak, komuni-  
kazio mitopoetikoa eta irudimen magiko sortzailea eskainiz.

Guztiak, mozorroa eta aurpegiaren arteko sintesia dira, artistak aurpegi  
ezberdinen sintesia topatzen saiatzen da sakonean. *Izena duen guztia... omen  
da?...*

Bukatzeke zera ekarri nahi dut gogora, Joxemartinekin hitz egiterakoan, zue-  
tako asko erreparatuko zineten *-juxtu-* eta *-ehuntatik ehun-* hitzak maiz erabil-  
tzen zituela eta horiek etorri zaizkit burura azken lerroak idazterako orduan ez bai  
dakit, *juxtu* Joxemartinek nahi izango zuen bezala gogora ekartzera lortu ote  
dudan, nahiz eta *ehuntatik ehun* ziur nagoen, berak hain sutsuki maite izan zuen  
bere familiaren izenean beretaz hitz egiten egon izana hemen zuen aurrean, ase-  
beteko zuela gure senide maitea.



